

## "Askatasuna" eta "Independentzia"

*Euskaldunon Egunkaria*, 1991-09-17: 3.

Hitzak ahozkatzea errazago da hauek adierazten duenari erantzunkizun zuzena ematea baino.

Hasteko, hitzen aukera bera ez da erraza. Lekuz lekuko eta garaiz garaiko zentzua ere hartzen du hitzak berak. Ni neu, adinez, giroz eta formazioz Sabino Aranaren jarraitzaile zen nire familian egosia naiz. Haurra nintzenez gero, "Gora Euzkadi Askatuta" entzun dut etxean eta Andoaingo Batzokian dantzari txiki nintzela, eta koskortu nintzenerako neroni hasi nintzen senti bezala esaten. Militarrek sortutako gerran Euskal Herriaren askatasuna aldarrikatzen zen. Gero, erbestean eta klandestinitatean, labe beroan gorde genuen hitza, eta batez ere honen zentzua. Halere, nire herriko euskal mundutik Venezuelan Eusko Etxeko abertzaletasunaren erdal mundura pasa nintzenean hasi nintzen Independentzia hitza gehiago entzuten, eta Sabinen irakurketan egin nuen Independentziarekin topo: *Bizkaya por su Independencia*: 1890an idatzi eta 1892an argitaratutako liburuxkak ernatu zuen, erdaraz bada ere, euskal kontzientzia; hogeita bost urteko gaztearen garrasia izan zen geure herriaren memorian geratu ziren askatasunaren alde borrokatutako lau batailen deskribapena: Arrigorriaga (867. urtea), Gordexola (bost mende gero), Otxandiano (1355) eta Mungia (1470).

Hau izan zen Sabinen egiazko lehen danbatekoa; urtebete beranduago, 1893an, irakurri zuen "Larrazabal"eko lehen jendaurreko hitzaldia. Gero USAko Presidente zen Teodoro Roosevelti 1902go maiatzak 2an bidali zion telegrama ("... felicito por Independencia de Cuba"... ) zela kausa jasan zuen, 37 urte zituela eta oso gaixo, bere espetxeramendu luzeena.

"Independentzia" hitzaren erabilera beste herrietan ere irabazitako gerrondoetan oinarrituta ageri dira erreferentzia bezala. hala, ingelesaren *Encyclopedia Britannicak* (vol. 7, 125A) honela definitzen du: "Declaration of Independence: 1776.go uztailak 4. USAko Kongresuan", ingelesak bota eta gero. Frantsesen *Larousse* entziklopedian: "Zer aukera egingo dute espainolek: tregoa gabeko gerra (...) ala betiko pakea, Cuban inoiz lortuko ez dena Independentziaren bitartez ez bada", Jose Marti (5145. orr.). Espainerako *Salvat*: "La guerra de la Independencia española" delakoak sei urte iraun zuen: 1808-1814, eta Napoleon Enperadorea harriturik utzi zuen, (...) Independentziaren alde borrokatu zen nazio batekin aurkitu baitzen"; ("Independencia", Ind. 20 orr.).

Alde batetik, "askatasuna". Badiola e.a.-ek ondo dioten bezala: inolako bortxarik gabe nor bere kontzientziaren eta borondatearen arabera jokatzeko eskubidea da: "independentzia", berriz: lurralde bat Estatuen komunitate barruan berdinetik berdinerako harremanak izaten jartzeko duintasuna.

Neuk nire herriarentzat nahi dudana, independentzia da, dudarik gabe; horretarako Euskal herriak ba du historia aldetik, hizkuntza eta kulturaren alderdi guztietatik begiratuta, eta batez ere bere borondatez, honetarako eskubide unibertsala; demokratikoki, lege guztien aurrean, lortu nahi duena; badu libre izateko borondate sendoa; eta honez gain erabiltzen dut neronek hau eskatzeko erabakikor den beste argudio bat: neurri honetako burujabetasunarik gabe ez digutelako hainbeste galerazi eta jarraiki diguten hizkuntza, herriaren arima, berreskuratzen utziko. Bestalde, honetarako bide bezala ikusten dut bi Estatu latzean mende dagoen geure Herria ez dela gerra bidez bakarrik menpe honetatik irtengo; gaur bideratzen ari den Europa barruan irtenbide justuagoa aurki dezakela; fedea dut, beste biderik geratzen ez zaidalako; eta European sar aurretik zilegi da gure herriarentzat Espainiagandik eta Frantziagandik gure askatasunaren eskubidea exigitzea, orain arte zanpatzen gaituzten Konstituzioak gure autodeterminazioa lortzeko eskubidea ezagutzeko gai izan daitezen. Herriak aukeratuko du demokratikoki Independentzirako, "berdinetik berdinerako harremanak izaten jartzeko duintasuna" ezagutzeko, bidea European nondik norakoa izan behar duen.

Hau da, gure nahaspila negargarri honetan euskaldun abertzale bezala gaur, askatasun guztien izenean, nire herriarentzat nahi dudana.

Ez gutxiago; gutxiagorekin ezin garelako bizi.